



5. KANALAK

Gure produktuak eta zerbitzuak bezeroarengana ailegatuko dira publizitatearen bidez. Gure enpresa telebistan iragartzen da, baita ere kartelak jartzen ditugu herrietan eta hirietan, gure furgonetan telefonoa daukagu jarrita denek ikus dezaten, deiak egiten ditugu promozioak eskaintzen, sare sozialak daukagu (Facebook, Tik Tok, Instagram, Twitter...) eta baita ere web orrialde bat daukagu. Web orrialde honetan zuzeneko mapa bat daukagu non gure bezeroak ikusi ahal dute non gauden, behar badute deitzeko eta guk joateko.

Ondoren, gure zerbitzuak eta produktuak bezeroengana helarazteko, gure furgonetekin haien etxera hurbilduko gara. Hor, gure zerbitzuak eskainiko ditugu: garbiketak, ilea apaindu, txertoak jarri, zauriak sendatu... eta honen ondoren, gure produktuak eskainiko ditugu, adibidez: kolonia, txampuak, animalien allergiei egokitutako janaria...

Badakigu, gure bezero gehienak leku zailetan bizi direla, mendiaren erdian edo tontorretan, non errepideak ez daude ezta asfaltaturik. Gure furgonetak hau konpontzeko prest gaude, gure gorpilak lur zailenetan ibiltzeko diseinatuta daudelako, hala nola: asfaltatu gabeko errepideetan, putsuetan, aldapa malkartsuetan... Baita ere dakigu Espainia hutseko eguraldia muturrekoa dela, neguan tenperatura oso hotzak daude eta leku altuetan elurra eta izotza dago, eta udan tenperaturak oso beroak dira. Horrez gain, furgonetak eguraldiaren arabera egokituko ditugu. Neguaren kasuan, izotz gaineko gorpilak, puntak eta irristagaitzak dituztenak. Eta udan, aire girotua ipiniko dugu furgonetaren barruan tenperatura egokia mantentzeko, animaliak eta langileak gustura egoteko.

Bestetik, animalien tamainaren arabera furgonetaren tamaina egokitzen ditu baita ere.

